

SUSTRAIA SAIOAREKIN IKASTEN  
("GLOSATEGIA")

## HITZAURREA (I)

Urte asko daramatzat EITBren Sustrai saioaren testuak itzultzen, 15 urte edo. Eta saioak, komunikazio aldetik, euskara aldetik, funtzionatu egin du. Baina emaitza on horren gakoa ez dagokio soil-soilik itzultzaileari; itzultzailearen atzean dagoen lan-taldeak ere badu-eta zerikusia emaitza horrekin, eta ez nolabaiteko zerikusia gainera.

Talde hori EITBko euskara-zerbitzua da. Itzultzen ditudan testu guztiak zuzentzeaz arduratzen dira zerbitzu horretako lankideak, eta bereziki, Asier Larrinaga talde horren arduraduna izan da hurrengo orrietan topatuko dituzuen zuzenketarik gehienak egin dituen. Ondo moldatu gara beti. Nik zuzenketak jaso, neure artxiboan sartu eta hurrengo baterako horiek kontuan izaten saiatzen naiz. Horrez gain, zuzenketak idatziz jasotzeaz ere arduratu naiz. Eta hamabost urtean, poliki-poliki eta ia-ia oharkabean, zuzenketa-bilduma polita bildu dut azkenean.

Oro har, zuzenketa bereziak direla esango nuke. Zergatik? Arrazoi askorengatik, baina batez ere erabilera oker horietako asko gure gizartean oso zabaldua daudelako, eta kasu askotan jatorrizko erabilera zuzenak ordezkatzera ere iritsi direlako; beste zenbait kasutan, estiloari dagozkion zuzenketak dira, eta alde horretatik, “estilo-liburuxka” baten edo antzeko zerbaiten aurrean gaudela esango nuke (estilo-liburu batez hitz egitea gehiegi izango ez balitz –eta gehiegi litzateke–). Erdarazko testuen hurbiltasunak eragindako akatsak ere badaude, edo diglosiak eragindakoak, eta zalantzarako erabilerak...

Zuzenketekin batera glosategi txiki bat topatuko duzue, artxiboko orrietan zehar sakabanatuta, baina batez ere hasieran. Izan ere, esku artean duzuen artxibo honetan jasotako zuzenketak eta esapideak biltzeari ekin nionean, nire asmoa hori bera izan baitzen: glosategi bat osatzea. Baina berehala zuzenketak biltzeari lehenetsi nion, glosategi-asmoak bigarren maila batean utzita. Hala ere, urte luzez hori izan da artxibo honen izena, “GLOSATEGIA”, nire ordenagailuko “Sustrai” direktorioan hamabost urtez lodituz eta mardulduz joan dena, esku artean duzuen lantxo hau berez edo osatu den arte.

Azkenik, amaitzeko, esango dizuet artxibo honetaz askotan baliatzen naizela, Sustrai saioarekin zerikusirik ez duten beste testu batzuk itzultzen ari naizenean, sortzen zaizkidan zalantzak argitzea lortzen baitut haren laguntzaz.

Ahaztu dut kasik, baina badut itzulpenen kalitateari buruzko gogoeta labur bat, talde-lanari buruzkoa; izan ere, itzulpenaren kalitatea ziurtatzeko gakoa hori baita: talde-lana edo elkar lana. Bakarka lan egitea ez baita bidea kalitate-maila jakin batzuk lortu nahi direnean. Eta inork ez dezala pentsa talde bat osatzeko hamaika bat lagun behar denik; ez, itzultzaile batekin eta zuzentzaile batekin nahikoa da. Gainerakoa, lan egiteko gogoaren, prestutasunaren eta borondate onaren esku dago.

Ez bekizkigu ez bata (gogo) ez bestea (borondate ona) falta –Sustrai saioko nekazari, abeltzain eta arrantzaleei inoiz falta ez zaien bezala.

X.G.

## HITZAURREA (II)

Pozik jasotzen dut astero *Sustraia*-ren gidoia, Xabierrek zuzentzeko bidaltzen didanean. Ez da zeregin nekagarria izaten, testua ondo egoten delako eta programako albiste eta erreportajeak irakurtzea oso interesgarri egiten zaidalako. Xabier, gainera, umore oneko pertsona da. Burutapen barregarriak, iruzkin zoroak, gogoeta sakonak eta esamesa friboloak helarazten dizkit beti bere mezuetan, eta niretzat atsedenaldirik moduko bat izaten da testuak zuzentzeko lan astunean.

Zuzenketa-bilduma hau osatuz, Xabierrek berriro erakutsi du bera ez dela lasto baten gorabeheretatik larritzen diren horietakoa: zuzenketak jaso, testu zaharrarekin alderatu, testuingurua argitu... Hamabost urteren buruan lan mardula atera zaio. Eta interes handikoa, esate baterako, ETBra filologiako praktikak egitera etortzen direnentzat, edo euskarazko testuetan zelako akatsak aurki daitezkeen aztertu nahi dutenentzat.

Aitortu beharra dago, dena dela, bilduma honetan jasotako zuzenketen atzean ez dagoela kasu guzti-guztietan akats bat. Batzuetan momentuko aldarreak eskatu dit gauzak beste modu batera esanda egon zitezten. Beste batzuetan ez dut jakin nire filien eta fobien gaineratik egiten. Eta beste batzuetan hiperzuzenketa jausi naiz. Nire deskarguan, gizaki soila naizela baino ez dut esango. Horrek ez dio baliorik kentzen material honi.

Hamabost urtegarrenean *Sustraia*-k irabazia du bere lekua Euskal Telebistaren programazioaren barruan. Gauzak ondo bidean direla, Xabierrek eta biok elkarlanean segituko dugu euskarazko gidoia prestatzen, eta Xabierrek, kementsua baita bera, bilduma honetan adibideak gehitzen jarraituko du. Probetxugarri izan dakigula denoi!

Asier Larrinaga Larrazabal  
EITBko Euskara Zerbitzuaren arduraduna

Bilbo, 2010eko azaroa

Oharra: Zuzenketen kasuan, ETBk zuzendutako esaldia ezkerrean agertzen da beti; eskuinean, berriz, jatorrizko esaldia agertzen da, parentesi artean.

OCM = Merkatuaren Antolakuntza Bateratua

OCM del vino = Ardo Merkatuaren Antolakuntza Bateratua

Casa del Parque de Aralar: Aralarko Parketxea

entre 800 y 1.000 metros: 800 eta 1.000 metro artean

lápiz: haitz altua

tercio posterior: atzealdeko herena

bragadas: azpizuriak

Sierra de Aralar: Aralarko mendia

emision (contaminante): isurketa (kutsagarria)

conservera: kontserba-lantegia

minimizar: minimizatu

garapen jasangarria

Fondos propios de la Comunidad Autónoma: Autonomia Erkidegoaren berezko fondoak

Label Vasco de Calidad Alimentaria: Elikagaien Kalitaterako Euskal Labela

Denominación de Origen: Jatorri-**Izena**

Cornisa Cantábrica: “Bizkaiko itsasoko ertza” dakar Elhuyar-rek. Dena den, hobe forma horren ordeztu, beste batzuk erabiltzea (Eitb-ren oharra).

Javier Beitia Arteako alkatea, Patxi Sierra-Sesumaga Nekazaritza-Diputatua eta Jose Maria Zorrilla EUDELekeko Presidentea bertan zeudela, “Udalerriak eta Natur Gune Babestuak” izeneko liburua aurkeztu zuten joan den astean (Esaldi egina)

sector del vino: ardoaren sektorea; ardo-sektorea

**bai** baitirudi (**ba** baitirudi)

Denominación de Origen Rioja Alavesa: Arabako Errioxa Jatorri-Izena

... elkartea zabalik dago **jende guztiarentzat** (... elkartea zabalik dago **jende guztiaren aurrean**)

**gehienak** airearen eta uren poluzioa nola gutxitu aztertzen zuten enpresak **ziren**.

1

2

mendikatea (mendizerra ez erabili)

Toloño mendikatea (“Kantabria mendikatea” eta “Toloño mendikatea” gauza bera dira)

EITBren oharra: gaztelaniaz <<climatología>> kontzeptua <<tiempo (atmosférico)>> edo <<condiciones atmosféricas>> kontzeptuen ordeztu erabiltzeko zaleak dira, baina euskaraz ez dugu horretan jausi behar. Kasu guztietan <<eguraldia>> ipini behar dugu, <<nire alaba Klimatologia ikastera joan da Madrilerara>> eta horrelako esaldietan izan ezik. Inoiz <<clima>> eta <<climatología>> ere nahasten dituzte

mendi-**ne**kazaritza (mendi**ko** nekazaritza)

[...] Gazta-Txapelketaren **aurtengo edizioa** (Gazta Txapelketaren **beste edizio bat**)

paratuberkulos**i** (paratuberkulos**ia**)

EITBren oharra: Paratuberkulosia dela eta, lehengo astean errakuntza bera agertu zen testu batean: <<mikrobakteria>>. Gaitz hori sorrarazten duen miKRObioa <<Mycobacterium paratuberculosis>> deritzona da (buruz nabil eta ez dakit guztiz ondo idatzi dudana). Euskaraz, beraz: <<miKObakterio>>.

proteina-landareak (landare proteaginosoak)

Urteko Harrapaketa-Kopuru analitikoa (TAC analitikoa ez erabili)

Nekazaritza-Politika Bateratua (PAC ez erabili)

Tona (tona metrikoa ez erabili)

Errezileko sagarra edota errege-sagarra (biak ongi)

Baserritarrak saski bete **Errezileko** sagar gozo**rekin** lehian aritu ziren

EIKE: Nekazaritzako Elikagaien Industrien Kalitaterako Elkartea

Luxenburgo, Friburgo... (ETBkoekin ez erabili Luxemburg...)

EITBren oharra: <<San Blasetan>> guztiz egokia da <<San Blas egunean>> adierazteko.

Erakunde publikoek inbertsio**en erdiak** egingo dituzte (erakunde publikoek inbertsio**en erdia** egingo dute).

Noski, Aberekin **ezin hutsik egin** halako ekitaldi garrantzitsuan (Noski, Aberekin **hutsik ezin egin** halako ekitaldi garrantzitsuan)

Aurtengoa, bigarren bisita du Aberekin Bruselan (“Aurten, Aberekin Bruselan egiten duen bigarren bisita da”)

Erlatibozko esaldiak emendatzeko modu jatorra: “Nabarmendu-beharreko beste ekitaldi bat, **euskaldunek parte hartu zuten ekitaldia gainera**, esnetarako behi-erakusketa izan zen”.

hiru **ordu laurdenez** (= durante tres cuartos de hora)

munduko azokarik handienetan hirugarrena da (munduko hirugarren azokarik handiena da)

esnetarako behi arrazen artean munduko onenetan laugarrena da (esnetarako behi arrazen artean munduko laugarren arrazarik onena da)

estan (stand)

arrain kontserbetako lantegiak (arrain kontserba lantegiak)

Mediterran**ear** dieta

Begi mekanikoak deitzen **diegu** guk (Begi mekanikoak deitzen **dizkiegu** guk)

EITBren oharra: <<Genetika>> (erdarazko testuak prestatzen dituenak jakin beharko luke) zientzia bat da. Ez da hobetzen, asko ikertuz ez bada, behintzat).

Ganaduaren ondare genetikoa hobetzeko ekimena (ganaduaren genetika hobetzeko ekimena)

antxo**aren** arrantza-aldia (antxo**a** arrantza-aldia)

antxo**aren** kontsumoa (antxo**a**-kontsumoa)

Bat koma 25 metrotik bat koma 30 metrora bitarteko garaiera du (= su altura oscila entre un metro 25 y un metro 30) (esaldi egina)

azoka sonat**u** bilakatu da (azoka sonat**a** bilakatu da)

bai jende**aren aldetik** bai erakusketari**en aldetik**

esne-kantitatea (esne-kopurua)

Esnearen kalitate**ari** eta kantitate**ari** buruzko datuak (esnearen kalitate**e** eta kopuruari buruzko datuak)

formula matematiko bat (matematikako formula bat)

txapelketan ikusiko **genuen**aren aurrerapena izan zen (txapelketan ikusiko **genukeen**aren aurrerapena izan zen)

pregoilaria (pregonaria)

jarraiki (jarraikiz)

dastaketa (dastatze-ekitaldia)

harremanetan **egon ez arren** (harremanetan **ez egon arren**)

Jakina, horrek eragina izan du (jakina, horrek eraginik izan du)

1.000 pertsona baino gehiagorentzako plaza bat altxatu zuten (1.000 pertsonarentzako plaza bat altxatu zuten)

ardi txakurrak (artzain txakurrak)

osasun erregistro eta guzti (osasun erregistroa eta guztiarekin)

13.577 tonako edukiera (13.577ko tonajea)

gehienbat (gehien-bat)

atun mojaren arrantza **aurrera doa** (atun mojaren arrantza **aurrera darrai**)

Lana aurrera doa (Lanak aurrera darrai)

“Kalamua” da kaitik aldentzen lehena eta “Ondarzabal”ek haren uharari **jarraitzen dio** (“Kalamua” da kaitik aldentzen lehena eta “Ondarzabal”ek haren uharari **darraio**)

lehenengo aldia izango da ekipo informatikoak eskuratzeko dirulaguntzak emango **dituztena** (lehenengo aldia izango da ekipo informatikoak eskuratzeko dirulaguntzak emango **dituztela**)

Horrek eragin handia izan du gure merkatuan (Horrek eragin handia izan du gure merkatuan **gainean**)

Europako Nekazaritzaren Orientazio eta Bermerako Kutxaren dirulaguntzak (Feoga-Garantiaren dirulaguntzak)

edukiontzi **bat** lauhun **herritarreko** (= un contenedor por cada cuatrocientos habitantes)

sari bana eman **die** (singularra beti)

Homologaturiko test azkarrak 8 **orduan** prest daude. Beraz, aberea hiltzen denetik, emaitzak 24 **orduan** egon daitezke eskura. (Homologaturiko test azkarrak 8 **ordutan** prest daude. Beraz, aberea hiltzen denetik, emaitzak 24 **ordutan** egon daitezke eskura)

"Tokiko Agenda 21" udaletako ordezkari politiko eta teknikar**iei** zuzendurik dago **bereziki** ("Tokiko Agenda 21" udaletako ordezkari politiko eta teknikar**ientzat** zuzendurik daude **gehienbat**)



zientzialariek (zientziilariek)

6.809 metro karratuan (metro karratutan)

Gaitza kutsatu duten abereak ez ezik (Gaitza kutsatu duten abereak ezezik)

Atun hegaluzea = atun zuria (atún blanco = atún en conserva)  
atun hegats horia = atun argia (yellowfin = atún claro)

Potoa sudurraren azpian daukazunean soilik kendu behar da estalkia (Estalkia soil-soilik kendu behar da potoa sudurraren azpian daukazunean)

EITBren oharra: Dirudienez, montes de Triano euskaraz **Grumeran** dira. Horregatik, testuan «...Zentroa Urtuella inguruetakoko mendietan...» utzi dut, nahaste handiagoa ez sortzeko. Grumeran mendikatean mendi hauek daude: Eretza, La Cruz, Ganeran, Mayor, Argalario, Bitarratxa. Ez dakit euretako zein den **Peñas Negras**.

Hegoaldeko zuhaitz igela kudeaketa plana daukan espezie horietariko bat da (Hegoaldeko zuhaitz igelakk kudeaketa plana daukan espezie horietariko bat da).

eredu-proiektua (proiektu pilotua) = proyecto piloto

gaixotasun koronarioengatik hiltzen direnen lautik batek kolesterolarekin du zerikusirik (= una cuarta parte de los... / Ez erabili "laurden" hitza esaldia osatzeko)

Enkarterriko jendea (Enkartazioetako jendea)

aste honetan = oraingo astean

zortzi astean (zortzi astetan)

antzina bezala (antzinan bezala)

Eta horretxek kezkatzen gaitu, hain zuzen (Eta hori da, hain zuzen, kezkatzen gaituena).

hezegunea (= humedal ; leku hezeak)

21eko Toki Agenda (= Agenda Local 21)

21eko Udaltaldea (= Udaltalde 21)

datozen egunetan (= en los próximos días... // hurbileko egunetan)

Garobel mendizerra (Salbada mendizerra)

Toloño mendikatea (Kantabria mendikatea)

Bi mendean ahaztuta egon zen (bi mendetan ahaztuta egon zen)

Zazpi hilabetez gutxienez bertan egongo dira, 12 gradu zentigradoan (Zazpi hilabetez gutxienez bertan egongo dira, 12 gradu zentigradotan)

Zallan aztergai dagoen sistemak fitosanitarioen erabilera murrizten lagunduko du, informazioa ematen baitu landareak une jakin batean behar dituen produktuari buruz, noiz eta zein neurritan erabili behar den **zehaztuta** (... **zehaztuz**)

Gourmet Klubaren Nazioarteko XV. Aretoa

Gaur egun kontsumitzen ditugun **4.000 kilo berdelak** frogarik onena **dira**, arrain honen arrakasta agerian uzteko (Gaur egun kontsumitzen ditugun **4.000 kilo berdel** frogarik onena **da**, arrain honen arrakasta agerian uzteko)

ontzi berriak eraikitzeke politika **aurrera doa** (ontzi berriak eraikitzeke politikak **aurrera jarraitzen du**)

... **kosmetika munduan** ere oso erabiliak dira (kosmetikagintzaren munduan ere oso erabiliak dira)

Erantzuna **AZTIren eta bere gisako zentroen** eskutik etorriko zaigu. (Erantzuna **AZTI bezalako zentroen** eskutik etorriko zaigu)

Gipuzkoako sagardo-lehiaketa **eta horren antzeko ekimenak** garrantzi handikoak dira (Gipuzkoako sagardo-lehiaketa bezalako ekimenak garrantzi handikoak dira).

Gero, oinekin zapaldu ondoren, hor atzean **ditudan** bezalako upategietara pasatzen zen (Gero, oinekin zapaldu ondoren, hor atzean **ditudanak** bezalako upategietara pasatzen zen)

**Berasategi, Adriá eta haien mailako** sukaldariak bere bezeroen artean kontaktzen ditu (**Berasategi edota Adriá bezalako** sukaldariak bere bezeroen artean kontaktzen ditu)

Mariok eta bere gisako harakinek eta Sukalkik eta haren mailako jatetxeek ezin ordainduzko lana egiten dute

Bizkaiko Lehen Sagardo Botila irekitzeko ekitaldi ofiziala urtero antolatzen den **jai moduko bat da** (Bizkaiko Lehen Sagardo Botila irekitzeko ekitaldi ofiziala urtero antolatzen den **jai bezalakoa da**)

Azoka edo merkatu erraldoi **bat** bezalakoa da (Azoka edo merkatu erraldoi **ia** bezalakoa da)

Lehiaketa **pizgarri moduko bat da** abeltzaintzat (Lehiaketa **pizgarria bezalakoa da** abeltzaintzat)

**Honelako** topaketei esker... (**hauek bezalako** topaketei esker)

Burbuilazko bainu **bat bezalakoa** da (Burbuilazko bainua **bezalakoa** da)

Eta hori berme moduko bat da (Eta hori bermea bezalakoa da)

Horrek, bidaiak saihestea **eta beste abantaila batzuk** izateaz gain, ikasleen arteko loturak indartzen ditu (Horrek, bidaiak saihestea **bezalako abantailak** izateaz gain, ikasleen arteko loturak indartzen ditu)

Nekazaritzaren Bermerako Fondoa (= Fondo de Garantía Feoga)

Egitura Fondoak (Fondo Estrukturalak)

erraz **kalte** daitekeen espeziea da (= especie altamente vulnerable).

Bigarren Helburuko Eskualdeak (= Zonas de Objetivo 2).

79 milioi **kiloko** esne kuota banatu dute doan (79 milioi **kilo** esne kuota banatu dituzte doan)

Arrantzaldi tradizionala **ez ezik**, diru iturri oso garrantzitsua **ere bada** (Arrantzaldi tradizionala **ez ezik**, diru iturri oso garrantzitsua **da**)

baterako indizea (= índice combinado)

Foru Aldundi**aren** zentroa (Foru Aldundi**ko** zentroa)

ardo atlantikoak (satlantiar ardoak edota ardo atlantiarrak)

Itsasoan arrantzatzen ari diren **zaleak** kontrolpean izateko (Itsasoan arrantzatzen ari diren **zaletuak** kontrolpean izateko)

tratatu **ezik** (tratatu **izan ezik**)

eta identifikaturik **egon ezik** (egon **izan ezik**)

Dirua irabazteko **baino gehiago**, zaletasun hutsez hazten dituzte zaldiak (Dirua irabazteko **baino**, zaletasun hutsez hazten dituzte zaldiak)

Baserriko Oilaskoaren I. Azoka (Baserriko Oilasko Azokaren I. edizioa)

Herri dastaldia; herri bazkaria; e.a. (dastaldi herrikoia; bazkari herrikoia; e.a.)

guztira **100 hektarea lur** lantzen dute (guztira **100 hektareako lurrak** lantzen dituzte)

**argazki eta guzti** jarriko dute (argazki**ak eta guzti** jarriko dituzte)

Lekeition antolatutako jardunaldia **aprobetxaturik** (Lekeition antolatutako jardunaldia**z aprobetxaturik**)

Zerratze eta birrintze lanei dagokienez, iaz jarduerak bere horretan iraun zuen; papera, kartoi, ore eta ohol ekoizpenak, **ordea**, gora egiten zuen (Zerratze eta birrintze lanei dagokienez, iaz jarduerak bere horretan iraun zuen; papera, kartoi, ore eta ohol ekoizpenak gora egiten zuen**n bitartean**)

Koloreak mahastiaren ziklo begetatiboa **amaitzeko dela** adierazten digu (koloreak mahastiaren ziklo begetatiboa **amaitzen ari dela** adierazten digu)

Tempranillo: tempranillo mahatsa (mahats goiztiarra...?)

Botritis (Ondo. Botritis cinerea izeneko lizunak mahatsondoetan eragiten duen gaitza)

pezón (de planta): txortena

remostar (el grano, por ejemplo, de uva): (esaterako, mahats aleari) muztioa jario

despalillar (quitar el escobajo para producir vinos "despalillados"): zuztarra kentzea (zuztarrik gabeko ardoak egiteko). Oharra: "escobajo" ere kirtena izan daiteke, baina beste testuinguru batean.

Urizaharra: Antzinako zerrendetan Euskaltzaindiak esaten zuen "Urizaharra" toponimoak -a artikulua duela, eta argitaratu berri duen zerrendan, ostera, ez dio -a artikulua marka jarri, Mallabiari eta beste hainbati jarri dien bezala. (ETBko Euskara Sailaren oharra).

Hortik ateratzen den lehen gauza **azukreak dira** **Pluralak**

Urtean zehar egiten diren lanak **uzta on bat lortzeko giltzarria dira** **Pluralak**

Pluralak.-

Aditzak subjektuarekin egin behar du komuntadura:

- Bertoko arrazak benetako altxorra dira guretzat: ONDO
- Bertoko arrazak benetako altxorra da guretzat: GAIZKI
- Bertoko arrazak benetako altxor dira guretzat: ONDO

ESTEKA: VÍNCULO (DE INTERTET):

*Hau dator Euskaltermen*

*Euskara* karramarro seinaledun

Pazifikoko karramarro

*Espaniara* cangrejo señal

cangrejo del Pacífico

*Latina* **Pacifastacus leniusculus**

Jose Maria Urretxa (Jose Maria **de** Urretxa)

**ADN mikrosateliten azterketa teknikak** (ADN mikrosateliteak Euskaltermen badator, ADN sekuentzia oso-oso polimorfikoak dira).

ahari baten **haziaz ernald**u zuten (*se inseminó con el semen de un carnero*. Kasu honetan, "intseminazio" hitza da ezabaturik gelditu dena, "-az ernald" euskal adiera jatorraren onerako).

Arroxela: (La Rochelle)

**hautespen** naturala, **hautespen** artifiziala (**hautapen**)

Leintz Gatzagaren bisitaldiak egunbete baino **gehiago** iraun dezake (Leintz Gatzagaren bisitaldiak egunbete baino **luzeago** iraun dezake)

Estekak: enlaces (de Internet) (Estekadurak)

**Gehien bat Gipuzkoan** kontsumitu arren... (**Gipuzkoan gehien bat** kontsumitu arren)

Estatuan ere beste **hainbeste** gertatu da (Estatuan ere beste **hainbat** gertatu da)

120 hektarea **a** mahasti **i** (120 hektarea **ko** mahasti **ak**)

XIX. mendearen erdialdera, mahasti lurak 500 bat **hektarea** izango ziren guztira eskualde osoan (XIX. mendearen erdialdera, mahasti lurak 500 bat **hektareakoak** izango ziren guztira eskualde osoan)

**mahasti hektareak** (hektarea mahastiak)

1            2

Errioxa Arabarreko nekazariak mahastietan egiten dituzten lanak ziur aski horregatik ez ditugu behar den bezala preziatzen gutako askok (Ziur aski gutako askok horregatik ez ditugu behar den bezala preziatzen Errioxa Arabarreko nekazariak egiten dituzten lanak)”

Mahastizainik gehientsuenak bezala, .....(e)k ere dakitenei begiratzuz ikasi du inauten (Mahastizainik gehientsuenak bezala, .....(e)k ere inauten ikasi du dakitenei begiratzuz)

Aldiz, ez **dezagun** ahantz lanik funtsezkoena gizakiarena dela (Aldiz, ez **bekigu** ahaz lanik funtsezkoena gizakiarena dela)

herriak albo **bietan** joango dira (herriak albo **banatan** joango dira)

Ibaizabalen ezkerrekoa (Nerbioiko ezkerrekoa - Márgen izquierda del Nervión)

Tolosako Foruen plaza (Tolosako Triangelu plaza)

Bidasoaren albo **bietako** jendea dator (= Viene gente de ambos lados del Bidasoa)

Kantauri **mendilerroa** (Kantauri **mendizerra**)

ganadu aziendak kutsa zitzaket**en** gaixotasun eramaileak baitziren horrelako abereak (ganadu aziendak kutsa zitzaket**een** gaixotasun eramaileak baitziren horrelako abereak)

Antxoa Eguna ala Antxoaren Eguna: Argumentu hori asko zabandu da azkenaldian, baina uste dut gutxienez puntu batean huts egiten duela: izena generikoa bada, kasu honetan bezala, “antxoa eguna” esatea guztiz zilegi da, “antxoa” singular horrek antxoa guztiak biltzen ditu eta. (EITBren oharra)

Meatzaldea (famosa zona minera de Bizkaia. “Meatze lurrak” eta antzekoak)

Zugaztieta (Meatzaldeko leku baten izen toponimikoa)

(Upelaren adinak ere **eragina du** bere barruan dagoen ardoaren ezaugarrietan)

(Upelaren adinak ere **eraginik badu** bere barruan dagoen ardoaren ezaugarrietan).

Erakundeetako eta sektoreko hizketakideekin elkarrizketa zabal eta konstruktiboa izateko **asmoa** ere badaukala adierazi zuen (Erakundeetako eta sektoreko hizketakideekin elkarrizketa zabal eta konstruktiboa izateko **asmorik** ere badaukala adierazi zuen).

Enkarterri (Enkarterri**ak**)

Kursaal **Elkargunea** (Kursaal **Zentroa**)

Lehen auzialdiko epaitegia (Lehen instantziako auzitegia)

12 eta 19 kilo haragi ***artean*** lortzen dute (12 eta 19 **arteko** kilo haragi lortzen dute)

baxurako arrantzontzien **hiru laurden** berriak dira (baxurako arrantzontzien hiru **laurdenak** berriak dira)

aurreikuspenak **oro** (aurreikuspenak **orok**)

Ehunekoak zenbaki arruntak bezala erabiltzen dira. Beraz, zilegi da “sei produktorek dena saldu **zuen** goizaren erdi parterako” esatea, baina oso arraro egiten da belarrira. Hobeto ematen du “sei produktorek dena saldu **zuten**” esatea. Ehunekoekin beste horrenbeste. (EITBren oharra)

Goizaren erdi parterako, produktoreen % 60k den-dena salduta **zeukaten** (goizaren erdi parterako, produktoreen %60k den-dena salduta **zeukan**)

ikasleen %77k lana aurkitu **zuten** (ikasleen %77k lana aurkitu **zuen**)

Bizkaiko portuetan harrapaketen % 60 deskargatzen da; Bermeo gailentzen da, lurralde honetako % 63**rekin** (Bizkaiko portuetan harrapaketen % 60 deskargatzen da; Bermeo gailentzen da, lurralde honetako %**63****arekin**)

Nekazaritzako euskal elikagaien sektoreak hirugarren hazkuntza-tasarik onena lortu zuen 2002. urtean, **% 3,7rekin** (Nekazaritzako euskal elikagaien sektoreak hirugarren hazkuntza-tasarik onena lortu zuen 2002. urtean, **% 3,7****arekin**)

Biztanleriaren % 40**k** nekazaritzan eta abeltzaintzan dihardu; (Biztanleriaren % 40**ak** nekazaritzan eta abeltzaintzan dihardu;)

Arabako biztanleen % 14 landan bizi **dira** eta lurraldearen % 88 kudeatzen **dute** (Arabako biztanleen % 14 landan bizi **da** eta lurraldearen % 88 kudeatzen **du**)

Etxe guztien **% 85ean** euskal produktu labeldunak kontsumitzen dira (Etxe guztien **% 85etan** euskal produktu labeldunak kontsumitzen dira)

Ekoizleen **%70** pozik **daude** (Ekoizleen **%70** pozik **dago**)

Txapelketara aurkeztu zituzten abereen % 10**ekin** sari guztien % 10 lortu zuten (Txapelketara aurkeztu zituzten abereen % 10**arekin** sari guztien % 10 lortu zuten)

Espanian saltzen diren gazta guztien % 60 TGTren eskuetatik igarotzen **dira**

fakturazioaren % **sei** da (fakturazioaren % **6a** da)

Gutxi gorabehera, Euskadin aske hazitako txerri guztien % 80 Basatxerrirenak **dira**

ekoizpenaren % 65 tokian tokiko harategien bitartez eta gainerako % 35**a** saltoki handien bitartez saltzen duelako (ekoizpenaren % 65 tokian tokiko harategien bitartez eta gainerako % 35 saltoki handien bitartez saltzen duelako)

Hemen biztanle**en** % 95 nekazaritzatik bizi **dira** (Hemen biztanleen % 95 nekazaritzatik bizi **da**)

behiak izango dituen kume guztien % 90 izango **dira** hazi horren emaitza (behiak izango dituen kume guztien % 90 izango **da** hazi horren emaitza)

Euskadik bere ardo-esportazioen balioa % 2 handitu zuen

arrautza guztien % 70 Ovo elkartetik pasatzen **dira** (pasatzen **da**)

Pentsuaren % 50 gutxienez artoa izan behar **da**.

Gaie**z** aldatu behar dugu (gaie**z** aldatu behar dugu)

Ubideko egurraren sorta (Ubideko egurraren zortea). Eztabaida filologikoetan ibili gara berba hori dela eta. Otxandioko lankide bat daukagu, eta berak dio Ipizkikoak erratuta daudela. Euren inguruan "egurraren sortie" esaten dela, baina hori "sorta" hitza dela, ez "zorte" (badakizu, Bizkaian -a + -a > -ea egiten da, eta hortik aurrerakoak: > -ia > -ie > -i). Egia esanda, Bizkai aldean "zorte" hitza ez da existitzen, "suberte" baizik. Gipuzkoa aldean ere ez, "zorte" ekialdekoa baita (zubererakoa)

"Ardien ilea kenduko du". ETBren oharra: "Ardiak moztu" ere esan daiteke

Nekazaritza eta Arrantza Saileko arduradun**ek** eta sektoreko ordezkari**ek osatzen dute** Mahai hau (Nekazaritza eta Arrantza Saileko arduradun**ez** eta sektoreko ordezkari**z osatzen da** Mahai hau)

Kanaria **Uharreak** (Kanariar **Irlak**)

Amorebieta-Etxano udalerrri bakarra da, euskaraz: **Zornotza**

Kantauri**ren** (Kantauri**aren**)

Euskadiko Piriniar Ganaduaren XVII. Lehiaketa (Euskadiko XVII. Piriniar Ganadu Lehiaketa)

**a) Gizarte Segurantzaren denontzako da; b) Gizarte Segurantzaren denontzako da; c) Gizarte Segurantzaren denontzako da.** Nik esango nuke normalena c) dela. Hortik aurrera, badakizu destinatiboak forma bi dituela euskaraz NORENTZAT eta NORENDAKO. Nik ez dakit NORENDAKO formak kutsatu duelako, edo adnominalaren eraginagatik (hau niRETZAKO oparia da > hau niRETZAKO da), baina kontua da -ko atzizkia daukana ere erabiltzen dela destinatibo normalarekin lehian. Horregatik ez nuke b) gaitzetsiko (ahoz batez ere), baina estandarrena c) da. a)-k ez dauka zentzurik, b)-ren reinterpretazioa delako.

Ahal den guztia egiten saiatzen dira, hortaz, bertoko arrazak **gal** ez daitezten. Hori bera gertatu zen, esaterako, "chato vitoriano" izeneko txerri arrazarekin, dagoneko **galduta** dago eta. (Ez erabili "iraungi" aditza testuinguru honetan).

Andaluziako bi teknikari izan dira Euskadin, entseguaren martxa **bertatik bertara** egiaztatzen (Andaluziako bi teknikari izan dira Euskadin, entseguaren martxa **"in situ"** egiaztatzen).

Jatorri-izenak indarrean daraman hamar **urtean** mahasti lur azalerak gora egin du (Jatorri-izenak indarrean daraman hamar **urteotan** mahasti lur azalerak gora egin du).

Garapenaren Munduu Foroa = Foro Mundial del Desarrollo

Kursaal Biltzar Jauregia = Palacio de Congresos Kursaal

Akitaniako Eskualde Kontseilua (Akitaniako *Conseil Regional*)

Ez da makineria-eta erakusteko **azoka** izan; zientzi gaiak jorratzekoa baizik (Ez da makineria-eta erakusteko **azokarik** izan; zientzi gaiak jorratzekoa baizik).

**Gure** etorkizuneko lanari begira (etorkizuneko **gure** lanari begira)

olio landareak, proteina landareak (oleaginosoak, proteaginosoak)

eta **eskerrak eman dizkie** Eroski, Carrefour, El Corte Inglés eta Unialco-ri, erakutsi duten jarrera onagatik (eta **esker oneko agertu da** Eroski, Carrefour, El Corte Inglés eta Unialco-k erakutsi duten jarrera onagatik) **ETB-ren oharra: ["esker oneko agertu" esateak, ematen du gauza ilegalen bat egin duela ("mesedetxuren bat" egin diela-edo)].**

Neiker: Landa Garapenerako eta Ikerkuntzarako Euskal Erakundea

Sagardo garaiaren **irekiera** (Sagardo garaiaren **zabalpena**)

sagardoaren **ekoizpena**: (sagardo **produkzioa**)

bertako ingurumenaren baldintzetara oso ongi egokitzen da (= se adapta muy bien a las condiciones medioambientales del lugar)



**Egin kontu esaldi barruko ordenari:** Gipuzkoako Foru Aldundiak sagarrondoak zabaltzeko proiektua martxan jarri zuenetik... (Sagarrondoak zabaltzeko proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarri zuenetik)

Diptongoz bukatzen diren hitzak, orohar, bokalez amaitzen diren gainerako izen guztiak bezala deklinatuko dira. Alde batera utzirik 'lau' zenbatzaileak, beste arrazoi batzuegatik, sortzen dituen arazoak, salbuespen bakarra 'gau' hitza da, ondoko hiru kasu hauean: gauez, gaueko, gauean. Monosilaboak izanik instrumentalean doazenak ere salbuespentzat hartzen dira (**deiez, gaiez, e.a.**).

**Gaiez** aldatuko dugu (**Gaiz** aldatuko dugu)

Arkauti (Arkaute)

Informazioaren gizartea

Kursaal Elkargunea (Centro Kursaal)

Ez ezik (ezezik)

Erakusketa horietaz gain (erakusketa horiiez gain)

ez dezagun **ahatz** (ez dezagun **ahaz**)

**Esaldi barruko ordena:** “Gizartearen gai batzuekiko sentsibilizazioa

1                      2                      3

Bilboko **Uri** Zaharra (Parte Vieja de Bilbao).

**Gantz-azido poliasegabe** ugari ditu berdelak (**Poliinsaturiko azido koipetsu** ugari ditu berdelak) (ácidos grasos poliinsaturados)

triglizeridoo-maila jaistea (triglizeridoen maila jaistea)

4.000 **bat pertsonak** (4.000 **pertsona inguruk**)

Gero, mahats mordoak aletu, zapaldu eta **hiru motatako ardoa** ateratzen da hortik

Hobeto esanda (Hobeto esan)

Lurra lantzeko lana 8 edo 10 **egunean** bukatzen da (Lurra lantzeko lana 8 edo 10 **egunetan** bukatzen da)

Eta joan den egunean, **apirilaren 10ean** amaitu zen (Eta joan den egunean, **apirilak 10**, amaitu zen)

Horietako bakan batzuek baino ez **dute** gure plateretan amaituko (Horietako bakan batzuek baino ez **dira** gure plateretan amaituko)

[...] mahatsa biltzen oraindik amaitu ez **badute** ere ([...] mahatsa biltzen oraindik amaitu ez **badira** ere)

Asto hau ezagutzen dutenek hartaz maiteminduta amaitzen **baitute** (Asto hau ezagutzen dutenak hartaz maiteminduta amaitzen **baitira**)

Uztailaren 26 batez utzi gintuen (nos dejó **un** 26 de julio)

Bilbaotarren sendiaren baserria bisitatuko dugu Loium (Bizkaian) (Bilbaotarr sendiaren baserria bisitatuko dugu Loium (Bizkaiaa))

Konpostajeko lehen auzo-lantegi pilotua (= planta piloto de compostaje comunitario)

Jose Luisek eta bere andreak euren sekretu txikiak dituzte, odolki-prestatzaile guztiek bezala (Jose Luisek eta bere andreak euren sekretu txikiak dituzte, odolki-prestatzaile guztiak bezala)

Musu beltzeko eta musu horiko ardiak = ovejas de cara negra y de cara rubia

Peña del Moro (Karrantzako mendi baten izena)

Haranak, Arabako Udalerriak, -a artikulua dauka, beraz: Harana, Haranak, Haraneko, Haranean, Haranetik...

Done Jakuee bidea (Done Jakueeren bidea)

Mendekostee igandea (Mendekostes igandea)

Maiatzeko Zuhaitza (“Tronco de Mayo”, Arabako herri bateko jaia)

Kantauri **aldeko** erkidegoak/eskualdeak/herriak (autonomías/probincias/pueblos de la cornisa cantábrica // Kantauri **ondoko** erkidegoak)

murrizt ditzakegu (murrizz ditzakegu)

Arabako Errioxa (Errioxa Arabarra)

Laginketak **bata bestearen atzetik** egiten dira (Laginketak **elkarren jarraian** egiten dira)

Basoa Fundazioa ekimen aitzindaria da Europan eta baso-jabeek **berek** jarri dute martxan (Basoa Fundazioa ekimen aitzindaria da Europan eta baso-jabeek **beraiek** jarri dute martxan)

arriku anitzeko aseguruua = Seguro Multiriesgo

Sagardotarako sagarrak

“Herritik kanpoan” ez dago gaizki, baina oso arraroa da (EITBren oharra).

Mahaiko partaideak baikor azaltzen dira etorkizunari begira (Mahaiko partaideak baikor azaltzen dira etorkizunaren aurrean)

Lizarra inguruetakoko eskulangileen erakusketa (Lizarra inguruetakoko eskulangile erakusketa)

Bertoko abereak mundu guztiari ezagutzera emateko modurik onena dira (Bertoko abereak mundu guztiari ezagutzera emateko modurik onena da)

Gordexolann zabalduko dugu aste honetako programa (Gordexolatik zabalduko dugu aste honetako programa)

nafar kastako zezenak = karrikiriak

“1<sup>o</sup>ra” ongi dago; baina “1<sup>o</sup>-era” edo “gradu batera” idaztea lagungarriagoa da bikoizlariarentzat. (EITBren oharra)

EITBren oharra: “Hogei kilometrora,” “hogei kilometroko,” “hogei gradura” (neurriak ematen direnean, ez da -ta jartzen). Hain bateratua ez dagoena inesiboduna da; era bietakoak daude tradizioan: “hiru egunetan”, “hiru egunean...” (dena dela, Euskaltzaindiak “hiru egunean” hobetsi du).

Abendu erdij aldean (Abendu erdia aldean)

Kantauri aldeko turismo arduradunek ere hartu zuten parte Fraisoroko jardunaldian (Kantabria aldeko turismo arduradunek ere hartu zuten parte Fraisoroko jardunaldian) “Kantabria alde” hori zein da? EAE, Kantabria eta Asturias? Orduan, “Kantauri alde” hobeto.

Artea (Bizkaiko herria) (Arteaga)

Aldudes (Aldudes)

Euskal Autonomia Erkidegoko abeltzainen laurdenek “Euskal Okela”rako egiten dute lan (Euskal Autonomia Erkidegoko abeltzainen laurdenak “Euskal Okela”rako egiten du lan).

Pare bat urtean (pare bat urtetan)

Zortzi urterako ezarrita genituen helburuak ondo bete dira (Zortzi urtetarako ezarrita genituen helburuak ondo bete dira)

Gure flotaren %50 lau urtean egin dela esan daiteke (Gure flotaren %50 lau urtetan egin dela esan daiteke)

Ibaltzibar edo Lanteno ibaia (Ibaizabal ibaia)

Dena den, urte hura baino askozaz lehenago bazen garrantzi handiko hiribildua, zeukan kokapen estrategikoagatik (Dena den, urte hartaz baino askozaz lehenago bazen garrantzi handiko hiribildua, zeukan kokapen estrategikoagatik)

Santutegiak bere izena nondik hartua duen jakitea ez da bat ere zaila (Santutegiak bere izena nondik hartuta duen jakitea ez da bat ere zaila)

Bost egunez, ikastaro oso interesgarria izan baitute orotariko baso-kudeaketari buruz. (Bost egunetan, ikastaro oso interesgarria izan baitute orotariko baso-kudeaketari buruz).

Mahastietan lanean ari garenok ez dugu gure lana oinarritu behar entzun ditugun gauzetan soil-soilik (Mahastietan lanean ari garenok ez dugu gure lana oinarritu behar soil-soilik entzun ditugun gauzetan).

Beste gai bat aipatuko dugu orain (beste gai batera pasatuko gara orain)

Abere hauetako gehienek euskal abeltzainen ukuiluetan amaitzen dute (Abere hauetako gehienak euskal abeltzainen ukuiluetan amaitzen dira)

azpiproduktu begetalen hiru laurdenek zabortegetan amaitzen dute (azpiproduktu begetalen hiru laurdenak zabortegetan amaitzen dira)

Ventalaperra (Venta La Perra edo Gijaba)

Benetako lana baino gehiago, denbora-pasa da berarentzat (Benetako lana baino, denbora-pasa da berarentzat)

Museo honetan, hainbat burdinlan erakusteko aukera daukagu, honezkero erabiltzen ez diren burdinlanak. (Museo honetan, hainbat burdinlan erakusteko aukera daukagu, honez gero erabiltzen ez diren burdinlanak)

mailuaz kolpatuz (mailuarekin kolpatuz)

Orain, pieza hau prest dago antzeko beste pieza batzuekin lotzeko (Orain, pieza hau prest dago beste antzeko pieza batzuekin lotzeko)

Gehientsuenak baserritarrak dira (Gehientsuenak dira baserritarrak)

ahorik finenak gozaraziko dituen produktua (ahosabairik finenak gozaraziko dituen produktua)

IKT-k hamabosgarren urteurrena bete du (IKT-k bere hamabosgarren urteurrena ospatu du)

Zeregin-aniztasuna = multifuncionalidad

trazabilitatea = trazabilidad

Artzainek berek hitz egin digute proiektuari buruz (Artzainek beraiek hitz egin digute proiektuari buruz)

Makatza gaztandegia bi senar-emaztek daramate ([...lo lleva un matrimonio]).

Albistegia hasteko, Aztik bultzatutako proiektu bati buruz hitz egingo dugu (Albistegia hasiko dugu Aztik bultzatutako proiektu bati buruz hitz egiten)

...hemendik gutxira **beste** baso-jabe **batzuk** gehituko badira ere (...hemendik gutxira baso-jabe **berriak** gehituko badira ere).

**palar** automatikoa (**arrobadera** automatikoa)

**Exciccata** euskaraz (**exicatas** erdaraz)

Nekazaritzaren ekoizpenak Ordizian du erreferentziarik onena (Nekazaritzaren ekoizpenak Ordizian du **bere** erreferentziarik onena)

Beraien artean kilometroak asko eta egoerak oso ezberdinak izaten dira.

Amurrioko postuetan mota guztietako produktuak **ikusi** ziren: gazta, baserriko ogia... (Amurrioko postuetan mota guztietako produktuak **ikusten** ziren: gazta, baserriko ogia...)

**erdi-graduko** eta goi-graduko prestakuntza-zikloak (**gradu-erdiko** eta goi-graduko prestakuntza-zikloak)

Gaiez aldatuko **dugu** (gaiez aldatuko **gara**)

Nerbioi **Garai** osoa (**Goi** Nerbioi osoa)

Nahi **duren** guztiak dasta dezaten (Nahi **duen** guztiak dasta dezan)

**Mozteko** ez da beharrezkoa ardiak lotzea (**Ilea kentzeko** ez da beharrezkoa ardiak lotzea) (Esquilar = moztu; “ardien ilea kendu” ere bai, baina...)

Ardiak moztu (= esquilar las ovejas)

Errioxan herri bakoitzak, txikiena izanda ere, **badu bere xarma** (Errioxan herri bakoitzak, txikiena izanda ere, **badu xarmarik**).

**Salmenta** gune handiak (**Salerostoki** gune handiak)

Ekoizpen horren erdi**ak** produktu eusko labeldunen merkatua izan **du** jomuga

eta gogorra **baino gehiago** bigun antzekoa da (eta gogorra **baino** bigun antzekoa da)

Eskaerak posta arruntez edo **posta elektronikoz** igorri behar ziren (Eskaerak posta arruntaz edo **e-mailez** igorri behar ziren)

Koloreak gozamen hutsa dira begirako, baita **ahorako** ere (Koloreak gozamen hutsa dira begirako, baita **ahogozorako** ere)

Fernandori ere arraza **honen** zaletasuna piztu zaio (Fernandori ere arraza **honekiko** zaletasuna piztu zaio)

Anaia zaharrak **harakin ikasi** zuen izeba batzuekin (Anaia zaharrak **harakinaren lanbidea ikasi** zuen izeba batzuekin)

15 graduz azpiko tenperatura (15 gradu azpiko tenperatura)

mendi**lerroa** (mendiz**erra**)

Orain, ezin hobeto etiketaturik eta identifikaturik eskura dezakegu merkatuan, Eusko Labelaren berme**arekin** (Orain, ezin hobeto etiketaturik eta identifikaturik eskura dezakegu merkatuan, Eusko Labelaren berme**az**).

gauza bera esan behar da film guztie**z** (gauza bera esan behar da film guztie**taz**)

Hau Villa Maria Luisa da: Euskadiko mintegirik **zaharretako** bat (Hau Villa Maria Luisa da: Euskadiko mintegirik **zaharretariko** bat)

Pagorriagan bederatzi **urtean** lortu duten emaitza benetan ona izan da (Pagorriagan bederatzi **urtetan** lortu duten emaitza benetan ona izan da)

Astigarraga inguruetan 7.000 tona sagar erabili dira aurten sagardoa egiteko, hau da, 300 **hektarea-sagardiren parekoa**

Lourdes Odriozolak eta Sagrario Arrizabalagak egindako lanari esker, **badugu aukera** Gipuzkoako ardoaren historia ezagutzeko (Lourdes Odriozolak eta Sagrario Arrizabalagak egindako lanari esker, Gipuzkoako ardoaren historia ezagutzeko **aukera badugu**)

Hurrengo astean **gai hau sakonago aztertuko** dugu (Hurrengo astean **gai honetan sakonduko** dugu)

Nekazaritza-errent**aren datua** hau da (nekazaritza-errent**ari buruzko** datua/nekazaritza-errent**ari dagokion** datua hau da)

Hamar **urtean** mila gazte nekazaritzara erakartzea espero dute (Hamar **urtetan** mila gazte nekazaritzara erakartzea espero dute)

Batez ere tomate-landareak **hazten** ditu (Batez ere tomate-landareak **lantzen** ditu)

Jakina, teknikariak eta nekazariak ongi prestatuta egon behar dira gai honet**an** (Jakina, teknikariak eta nekazariak ongi prestatuta egon behar dira gai honet**az**)

Hiruzpalau **urtean** hainbat lorpen izan ditugu (Hiruzpalau **urtetan** hainbat lorpen izan ditugu)

Aiara aldea (Kantauri Arabarra)

Karrantzako biztanleen laurden**ek** 65 urte baino gehiago **dituzte** (Karrantzako biztanleen laurden**ak** 65 urte baino gehiago **ditu**)

Aiako **Testatze** Zentroa (Aiako **Testaje** Zentroa)

Bizkaii aldera joango gara (Bizkaiaa aldera joango gara)

Bizkaii osoarentzat (Bizkaiaa osoarentzat)

Mendira bidean (mendirako bidez)

Ia bi mila ardik zeharkatu zituzten Ordiziako kaleak, Aralarko bazkalekuetara bidean  
(Ia bi mila ardik zeharkatu zituzten Ordiziako kaleak, Aralarko bazkalekuetara bidez)

Batzuetan, iparraldeko herrialdeetara bidean ere ikus ditzakegu, paseko hegaztien kasuan (Batzuetan, iparraldeko herrialdeetara bidez ere ikus ditzakegu, paseko hegaztien kasuan)

Garai hartan bazegoen errota bat, Iza dukearena, Herrerian zegoen, Zanbranara bidean  
(Garai hartan bazegoen errota bat, Iza dukearena, Herrerian zegoen, Zanbranara bidez)

gazta berria moztea (= corte del nuevo queso // gazta berriaren mozketa)

eskaintzen dugun kalitatearekin pozik gaude (eskaintzen dugun kalitateaz pozik gaude)

Foru Aldundiko teknikariak hartu zuten parte ikastaroan (Foru Aldundiko teknikariak ikastaroan parte hartu zuten)

baserriaren zaletasuna aitona-amonengandik datorkio (baserriarekiko zaletasuna aitona-amonengandik datorkio)

Igoneren sendiak beti egin du lan ganadu horrekin (Igoneren sendiak beti lan egin du ganadu horrekin)

Normalean, arraza berberekin egiten dugu lan beti (Normalean, beti lan egiten dugu arraza berberekin)

Gurasoek abeltzaintzan egin zuten lan beti (Gurasoek beti lan egin zuten abeltzaintzan)

Eskolan ondo jan dugu beti (Eskolan beti ondo jan dugu)

Gure aitona-aitek beti egin dute ardoa (Gure aitona-aitek ardoa egin dute beti)

lekua erabat iragazgaitza izan, hezetasuna eta tenperatura kontrolpean eduki beti...  
(lekua erabat iragazgaitza izan, hezetasuna eta tenperatura kontrolpean beti eduki...)

Baserritar bakoitzak leku bera hartzen du beti plazan (Baserritar bakoitzak beti leku bera hartzen du plazan)

Laborategiko lanari esker, ia beti izaten da posible behin betiko ondorioak ateratzea.  
(Laborategiko lanari esker, ia beti posible izaten da behin betiko ondorioak ateratzea.)

Lursailok hainbat adinetako abereekin erabiliko dituzte, lote bat merkaturatzeko prest izateko **beti** (Lursailok hainbat adinetako abereekin erabiliko dituzte, lote bat **beti** merkaturatzeko prest izateko)

Ordenagailuaren bitartez, eta eguraldiaren arabera, temperatura erregulatu egiten dugu, 20-21 graduko tenperatura egonkorra edukitzeko **beti** (Ordenagailuaren bitartez, eta eguraldiaren arabera, temperatura erregulatu egiten dugu, 20-21 graduko tenperatura egonkorra **beti** edukitzeko)

**Beti** ongarridosi **berdinak** aplikatu ordez, [...]

**noranahiko** ibilgailua (**lur orotarako** ibilgailua)

Berak bi grina handi baititu: gozogintza eta euskal kultura. Eta biak Museoan elkartu ditu, sekulako **emaitzekin**. (Berak bi grina handi baititu: gozogintza eta euskal kultura. Eta biak Museoan elkartu ditu, sekulako **emaitza lortuz**)

Jendearen erantzun**arekin** pozik gaude (jendearen erantzun**az** pozik gaude)

5 harrapari gautar eta 11 harrapari eguargitar (= rapaces nocturnas y diurnas)

itsas mailatik 963 metrora (= a 963 metros sobre el nivel del mar)

Añarbeko urtegiari eta horren antzekoei esker (idem)

Europako Batasuneko Justizia **Auzitegia** (Europako Batasuneko Justizia **Epaitegia**).

Ondo egindako lanaren **onirizpena** da saria (Ondo egindako lanaren **aitortza** da saria)

kontrapasa (kontrapasea)

Nahi **dudan** pertsonekin nago (Nahi **ditudan** pertsonekin nago)

Kanaria Uharteak, Palma edota Euskadi **elkarrengandik** urrun daude (Kanaria Uharteak, Palma edota Euskadi **elkarretik** urrun dute)

Eginokontu ordenari: **Mendikoi aurten ere, eta laugarrenik**, antolaketa-lanetan aritu da.

**bertuteak** (**birtuteak**)

Arbolazaintza**ko** IV. Jardunaldiak

Hau ez da apeta**a**, benetako premia baizik (Hau ez da apeta**rik**, benetako premia baizik)

karbono dioxidoa (CO<sub>2</sub>)

Baina **zeintzuek** egiten dituzten bisita gehien galdetzen baduzu, orduan bai, herri-giroan errazago topatuko dituzu 10 bisitaldi baino gehiago egiten dituztenak. (Baina **zeintzuk** egiten dituzten bisita gehien galdetzen baduzu, orduan bai, herri-giroan errazago topatuko dituzu 10 bisitaldi baino gehiago egiten dituztenak)



Natura 2000 Sareak Gipuzkoan dituen 40.000 hektarea horien bostenak, Aiako Harria Natur Parkeari dagozkio (Natura 2000 Sareak Gipuzkoan dituen 40.000 hektarea horien bostena, Aiako Harria Natur Parkeari dagokio)

Ibaitako urak jaso eta urez hornitzen dira Gipuzkoako biztanleen erdiak

Azken batean, abeltzaintza ekologikoak, abereen osasunari ez ezik, onura handia ere ekarri dio pertsonen eta **lurraren beraren** osasunari (Azken batean, abeltzaintza ekologikoak, abereen osasunari ez ezik, onura handia ere ekarri dio pertsonen eta **lur beraren** osasunari)

Etortzerik izan ez zutenek urtebetez itxaron beharko dute, **beste aukera bat** izan arte. (Etortzerik izan ez zutenek urtebetez itxaron beharko dute, **aukera berria** izan arte.)

Edari hau **botilan soilik** merkaturatzen da (Edari hau **soil-soilik botilatan** merkaturatzen da)

Mugaz bi aldeetako ardi-sektoreek gero eta lotura estuagoak dituzte.

**Urte askoan** lan egiten dut telemarketingean

Gogo handia nuen **zerbait egiteko hemen** (gogo handia nuen **zerbait hementxe egiteko**)

Jendeak kalitateko arkumea kontsumitzea nahi dugu

1                      2                      3

... beti **egoten zen** parte hartzeko prest (beti **zegoen** parte hartzeko prest)

Beti egoten zen **prest** parte hartzeko (beti **prest** egoten zen parte hartzeko)

2005. urteko ekoizpena espero **zen** baino txikiagoa izan da (2005. urteko ekoizpena espero **zena** baino txikiagoa izan da)

Arabako Kantaurialdea (Kantauri Arabarra)

Kantaurialdea = Cantabria

**Badakite** izadirako eta garapen iraunkorrerako ekoizpen ekologikoak **zer-nolako** garrantzia daukan (izadirako eta garapen iraunkorrerako ekoizpen ekologikoak daukan garrantziaz **kontzienteak dira**)

Produktuen erdiak Euskadin merkaturatzen dituzte (Produktuen erdia Euskadin merkaturatzen dute). Erreferentzia plurala bada, zatikiak pluralean. Erreferentzia singularra bada, zatikiak singularrean. Adib.: “produktuak” → plurala: produktuen erdiak; “tarta” → singularra: tartaren erdia.

Aralar inguruko mendietan, Naera Haundi baserria **topa dezakegu** (Aralar inguruko mendietan, Naera Haundi baserria **topatzen dugu**)

Enpresetako ordezkariak (enpresen ordezkariak)

**Badakite denek** oso garrantzitsua dela (**Denek badakite** oso garrantzitsua dela)

Animalietatik datozen produktuak (Animaliengandik datozen produktuak)

Euskadiko alerta-unitateak erne daude urteko egun guztietan, **egunean** 24 orduz

hartzidura malolaktikoa

Europar Batasuna (Europako Batasuna)

Bilduma-Landareen IV. Azoka (Landare Bildumagarrien IV. Azoka)

Arboretum (arboreto)

Horrez gain, badituzte Enkarterrikoak **soilik** diren arrazak, esaterako, “Enkarterriko astoa” eta “Villano Txakurra” (horrez gain, badituzte **soilik** Enkarterrikoak diren arrazak, esaterako, “Enkarterriko astoa” eta “Villano Txakurra”)

Villano txakurraren egoera urte batzuez nahiko kezkarria izan zen (Villano txakurraren egoera urte batzuzz nahiko kezkarria izan zen)

Alfonso Zamorak –kimikariaa eta nekazaritza-injineruaa– sektoreko enpresa askorekin urte luzeetako eskarmentua izan zuen (Alfonso Zamorak –kimikariaak eta nekazaritza-injineruaak– sektoreko enpresa askorekin urte luzeetako eskarmentua izan zuen) (Aposizioa)

Limousinaa (Limousinee)

Ardiak mozteko erakustaldia

Horixe baita Bizkaiko txokolinetik denok espero duguna (Horixe baita Bizkaiko txakolinaz denok espero duguna)

Hiru ordu laurden

“Gastronomia Cantábrica” (catering-enpresa bat da).

Zuhaitzek gure herriaren azaleraren erdia okupatzen dute (zuhaitzek gure herriko azaleraren erdia okupatzen dute)

Ohituruak aldatzea (ohiturez aldatzea)

“Aizkorri-Aratz Parkea” edo “Aizkorri-Aratzeko Parkea”: bietara ongi dago.

Espezie = Taxon (ez erabili “taxon” hitza)

Azpigorriak ematen dituen antxumeak (Azpigorrik ematen dituen antxumeak)

Guk Hondarribi Zuria erabiltzen dugu (Guk Hondarribi Zurii erabiltzen dugu) (Izen arrunta da, letra larriz idatzi arren)

Charollais lurrealdea (Charollais eskualdea)  
Borgoina eskualdea (Borgogne herrialdea)

Mantenugaitan aberatsagoak dira, batez ere proteina eta bitaminatan (mantenugai aldetik aberatsagoak dira, batez ere proteina eta bitamina aldetik)

[...] txahalazz erraz erdi dadin ([...] txahalaa erraz erdi dadin)

Arabako Errioxa (Arabarr Errioxa edo Errioxa Arabarra)

hazkunde begetatiboa = desarrollo vegetativo (landare-garapena)

Mikerinos (Mikeinos) Mainueta inguruko mendixka baten izena da.

txorten = escobajo

mahats-patsa = orujo de la uva

Bizkaiko Foru Aldundiak eta La Caixak izenpetutako hitzarmena izango dugu albiste (Bizkaiko Foru Aldundiaren eta La Caixaren artean izenpetutako hitzarmena izango dugu albiste)

La Caixaren gizarte-ekintza = obra social de La Caixa

despalillar = quitar el escobajo = txortena kendu

Europar Erkidegoa = Comunidad Europea

Bizkaiko Lehen Sagardo Botila (Bizkaiko Lehen Botila Sagardoa) **Oso arraro egiten zait <<lehen botila sagardoa>> esatea. Beharbada, <<lehen botila sagardo>> hobetsiko nuke, baina guttiz bete-betekoia ere ez zait iruditzen. Beraz, <<lehen sagardo botila>> hobeto. (EITB-ko Euskara Saila)**

Hanka-jarrera ona = tener buen aplomo o buenos aplomos (el ganado)

Gazta hura botila bat ardorekin jan behar zen (Gazta hura botila bat ardoarekin jan behar zen) **Berriro ere zalantza neurri esapideekin. Ematen du <<botila bete ardo>> eta <<botila bete ardoa>> ondo daudela, biak. Baina gauza bera esan daiteke <<botila bat ardo>> eta <<botila bat ardoa>> esapideei buruz? <<Botila bat ardo>> zalantza gabeagoa iruditzen zait. (EITB-ko Euskara Saila)**

Txakur hauek euren berezko izaeragatik maite dira (Txakur hauei euren berezko izaeragatik maite zaie)

Baina lehen ez genekien beste ardo mota batzuk ere bazeudela (Baina lehen ez genekien beste ardo mota batzuk ere bazeudenenik)

